



IKASTARO OSAGARRIA **INDUSTRIA MARKETIN DIGITALA (1. ED)**

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2021/2022

ARLOA: Giza eta Zuzenbide-Zientziak

KREDITUAK: 13 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 643.50 € (Asegurua: 4 €, galdetu)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Miguel Ángel Peña Cerezo, Arantza Beitia Ruiz Mendarozqueta, Jorge Tejedor Núñez

AURKEZPENA

Ikastaro osagarri honek industria-enpresaren kudeaketa digitalari lotutako prestakuntza-eskaerari erantzuten dio, 4.0 eraldaketa bizian murgilduta baitago eta garrantzi handia baitu euskal ekonomiarentzat.

Testuinguru honetan, ikastaro osagarri honek prestakuntza-bide bat eskaintzen die IKTek industria-enpresen marketin digitalaren ingurunean eraginkortasuna eta lehiakortasuna hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutu nahi dituzten pertsoneri.

Edukia: Business intelligence; webgunea, bloga eta RRSS; inbound marketina; IoT eta digitalizazioa industrian; kudeaketa-esperientziak.

ZURE BILA GABILTZA

Prestakuntza honek industria-sektoreko kudeaketa digitalaren arloko prestakuntza-beharrei erantzuten laguntzen du, bai kudeaketa-profiletan baita profil tekniko-teknologikoetan ere.

Merkataritza kudeatzeko eta industria-ingurunean informazioa tratatzeko bokazioa duten pertsonak bilatzen ditugu, espezializatu eta digitalki eguneratu nahi dutenak 4.0 Industriaren erronkei aurre egiteko.

Digital Management & ERP masterrarekin lotuta dago. Aintzatespena: 13 ECTS kreditu.



IRTEERA PROFESIONALAK

Ikastaro osagarri honek zure garapen profesionalean aurrera egiteko aukera ematen dizu, osagai digital sendoa duen ingurune ekonomiko eta industrial berri batean.

Prestakuntza honek industria-kudeaketaren arloan osagai digital handia duten profil profesionalen gero eta eskari handiagoari erantzuten dio. Hona hemen adibide batzuk: merkataritza-informazioaren kudeatzailea, social selling/community manager, web-posizionatzailea, datu-analista, garatzaile digitala merkataritza-arloan, salmenta-teknikaria, kanpo-aholkularia, profil digitala duen profesionala industria-enpresetan, etab.

BALDINTZAK

Goi-mailako hezkuntza (aribidean edo amaituta), profil teknikoa edo kudeaketa-profila duena.

PRAKTIKAK

Prestakuntza modular hau Digital Management & ERP: Enpresa 4.0 Masterrarekin lotuta dago. Masterrak digitalizazioarekin lotura handia duten erakundeekin lankidetzat estua du, eta enpresetan borondatezko praktikak egiteko programa dauka.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2022/01/11-tik 2022/04/01/-era

EMATEKO TOKIA: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea – Arabako Atala

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/ IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea – Arabako Atala

HELBIDEA: Izardui Komandantea, 23 01006 Gasteiz

TELEFONOA: 945 01 43 69

POSTA ELEKTRONIKOA: digitalmanagement4.0@ehu.eus

WEBGUNEA: go.ehu.eus/digitalmanagement4.0

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.